

1 1991n Euskal Herriko I. Soziolinguistikazko Inkesta egin zen eta emaitzak *Euskararen jarraipena. La Continuidad del Euskera. La Continuité de la Langue Basque* lanean argitaratu ziren.

1996an egin zen Euskal Herriko II. Soziolinguistikazko Inkestan, 1991n lehenengo inkestan bezalaxe, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetza, Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia eta Iparraldeko Euskal Kultur Erakundea elkarlanean aritu dira ikerketaren fase desberdinetan, hau da, galdesortak diseinatu, prestatu eta lurralde bakoitzari egokitzerakoan, lagin-finkapenean, datu-bilketan eta txostenen idazketan.

Oraingoan ere, Montrealeko Université de Québeceko R. Bourhis jaunaren aholkularitza eta ekarpenak balio handikoak izan dira.

Euskal Herriko II. Soziolinguistikazko Inkestaren helburuak honakoak izan dira:

- Euskal Herriaren gaur egungo egoera soziolinguiskoaren azterketa sakona egitea, ondoko gaiei buruz dagoen informazioa egiaztatzeko: hizkuntza-gaitasunaren bilakaera; euskararen erabilera etxean, familiarik kanpoko gertuko komunitatean, lanean eta eremurik formalenetan; aldi berean, euskararen erabilera sustatzeko hartu beharreko neurriei buruz biztanleriaren interes eta jarreretan sakontzea; familia bidezko transmisioari buruzko diagnosis egitea eta euskaldun berrien erakarpina eta hizkuntza-jokabidea aztertzea.

- Maila ezberdinetan informazioa lortzea, hala nola:
 - Maila sinkronikoan: hizkuntzaren gaur egungo egoera ezagutzea.
 - Maila diakronikoan: maila bereko informazioan oinarrituta, hizkuntzaren bilakaera ezagutzea, 1991ko I. Soziolinguistikazko Inkestako datuekin alderatuz.

Lortu diren datuek osotasunaren ikuspegia ahalbideratzen dute, bai eta maila desberdinetako azterketa xehekatua ere. Nafarroaren kasuan azterketa xehekatu honek Euskararen Legeak ezartzen dituen hiru hizkuntza-eremuak aztertzen ditu. Horien guztien artean honako hau nabarmendu beharra dago: 1991tik gaur arte Nafarroako populazioak euskarari buruz duen iritzia asko aldatu da. Gaur egun populazioaren %68k errespetuzko jarrera dute gure hizkuntzarekiko eta hori pozgarria da, denoi etorkizun baikorragoa iragartzen digun heinean.

Nafarroan laginaren diseinua eta prestakuntza Nafarroako Gobernuko Estatistika Atalak egin du. Bestalde, Taller de Sociología enpresak egin du landa-lana.

Informazio-bilketa 1995eko abendua eta 1996ko otsaila bitartean egin da. Inkestatu bakoitzari etxean egin zaio inkesta, egituraturutako galdesorta erabiliz.

15 urtetik gorako biztanleei zuzendutako laginak 1.464 inkesta bildu ditu eta eremu linguistikoaren arabera banaketa honakoa izan da: eremu euskaldunetan 504 inkesta, eremu mistoan 672 eta eremu ez-euskaldunetan 288.

Eremu bakoitzean 15 urtetik gorako biztanleriari proiektatu zaizkio emaitzak, 1991ko zentsuan jasotako datuetan oinarrituta. Gainera, eremu linguistiko bakoitzeko emaitzak ponderatu egin dira, 15 urtetik gorako biztanleriaren banaketa sexuaren, adinaren eta jarduera-adarraren arabera. Euskaldunen eta erdaldunen banaketa ere hartu da kontuan.

Inkestak zein zentsu-sekziotan (konglomeratutan) egin behar izan diren erabakitzeke, etapa anitzeko laginketa geruzatua erabili da. Konglomeratu bakoitzean, familiak modu sistematikoan aukeratu dira eta familia bakoitzean norbanakoaren aukeraketa ausazkoa izan da.

Nafarroako lagin osoaren laginketa-errorea $\pm 3,5$ koa da %95,5eko konfiantza-mailarako eta $p=q=\%50$. Konfiantza-maila bererako, eremukako laginketa-erroreak honako hauek dira: $\pm 4,8$ koa eremu euskaldunetan, $\pm 4,9$ koa eremu mistoan eta $\pm 6,1$ koa eremu ez-euskaldunetan.



1 HIZKUNTZA-GAITASUNA




1 Biztanleria hizkuntza-gaitasunaren arabera

Nafarren artean hamarretik bat (%9,4) elebiduna da, hamarretik beste bat (%9,8) elebidun hartzailea eta gainontzeko gehiengoa (%80,6) erdaldun elebakarra

Nafarroako Foru Komunitatean kontaktuan dauden bi hizkuntzetako bakoitzean, hots, euskaraz eta gaztelaniaz, hiritarrek daukaten hizkuntza-gaitasunaren arabera, lau talde bereizi behar dira:

- **Euskaldun elebakarrak:** “ongi” hitz egiten dute euskaraz eta gaztelaniaz ez dute “ongi” hitz egiten. 15 urtetik gorakoen %0,2 baino ez dira, hots, 1.100 lagun, gutxi gorabehera.
- **Elebidunak:** “ongi” edo “nahikoa ongi” moldatzen dira euskaraz eta gaztelaniaz. Talde honetakoak biztanleriaren hamarrena dira (%9,4), hots, 41.000 pertsona inguru.

HIZKUNTZA-GAITASUNA. NAFARROA (%)



Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

- **Elebidun hartzaileak:** euskaraz “zertxobait” dakite, edo, hitz egin ez arren, “ongi” edo “nahikoa ongi” ulertzen edo irakurtzen dute. Biztanleriaren hamarrena dira hauek ere (%9,8), hau da, 42.800 pertsona inguru.
- **Erdaldun elebakarrak:** gaztelaniaz baino ez dakitenak. Nafarroako biztanle gehienak dira (%80,6), 352.300 pertsona inguru.

Eremu euskaldunean biztanleen erdia baino gehiago elebiduna da, baina Nafarroako gainerako eremuetan gehienak erdaldun elebakarrak dira

Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, eremu linguistiko euskaldunak ezaugarri oso bereziak ditu, Nafarroako gainerako tokien aldean.

- Eremu **euskaldunean**, biztanleriaren erdia baino gehiago (%57,6) elebiduna da, eta gutxiengo bat (%2,3) euskaldun elebakarra. Elebidun hartzaileak %7,4 dira eta erdaldun elebakarrak herena (%32,7).
- Eremu **mistoan**, ordea, biztanle gehienak (%81,6) erdaldun elebakarrak dira. Elebidun hartzaileen portzentaia %13koa da eta elebidunena %5,4koa besterik ez.

- Eremu **ez-euskaldunean**, ia biztanleria osoa (%93,2) erdaldun elebakarra da. Elebidun hartzaileen portzentaia adierazgarria da (%6,0) eta ia ez dago elebidunik (%0,8).

Elebidunen artean, bi heren (27.500 lagun) eremu euskaldunean bizi dira. Hirugarren herenetik 12.200 lagun eremu mistoan bizi dira eta 1.300 eremu ez-euskaldunean.

Datu horiek 1991ko I. Soziolinguistikazko Inkestan lortutakoekin konparatzen badira, argi azaltzen da azken bost urteotan:


- elebidunak 3.500 gehiago direla gutxi gorabehera eta elebidun hartzaileak 20.000 gehiago;
- euskaldun elebakarrak 1.600 pertsona gutxiago direla eta erdaldun elebakarrak 9.000 inguru gutxiago.

HIZKUNTZA-GAITASUNA EREMUKA

	NAFARROA		EUSKALDUNA		MISTOA		EZ-EUSKALDUNA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
GUZTIRA	437.200	100,0	47.700	100,0	227.800	100,0	161.700	100,0
Euskaldun elebakarrak	1.100	0,2	1.100	2,3				
Elebidunak	41.000	9,4	27.500	57,6	12.200	5,4	1.300	0,8
Elebidun hartzaileak	42.800	9,8	3.500	7,4	29.600	13,0	9.700	6,0
Erdaldun elebakarrak	352.300	80,6	15.600	32,7	186.000	81,6	150.700	93,2

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

HIZKUNTZA-GAITASUNA EREMUKA (%)



Oharra: Zirkuluaren tamaina eremu bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera

Euskara berreskuratzen hasi da Nafarroan, igoera handia gertatzen ari baita gazte elebidunen proportzioan

Nafarroan hizkuntza-gaitasunak adinaren arabera izan duen bilakaera aztertzean, argi agertzen da euskara berreskuratzen hasi dela gazteen artean, luzaroan gorabehera handirik izan gabe egon ondoren edota helduen artean zertxobait atzera egin eta gero.

a) Eremu euskalduna

- Euskaldun elebakarrak 50 urtetik gorako pertsonak dira, beraz gero eta gutxiago, 1991ko I. Soziolinguistikazko Inkestatik ateratako datuekin egindako erkaketak erakusten duen bezala.
- Elebidunak %63 dira 64 urtetik gorako artean eta portzentaia %58ra jaisten da 35 eta 64 urte bitarteko artean eta %52ra 25 eta 34 urteko artean. Baina, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen (70eko hamarkadan jaiotako) kasuan, beheranzko joera hori aldatu egiten da, portzentaia %59ra igo baita. Gainera, 1991ko Zentsuko datuen arabera, joera hori are sendoagoa da 10 eta 15 urte bitarteko (80ko hamarkadan jaioen) artean, %70 elebidunak baitira.

- la ez dago elebidun hartzailerik 50 urte edo gehiagoko artean, baina portzentaia gora egiten du nabarmen adinak behera egin ahala; izan ere, %16ra iristen da 16 eta 24 urte bitarteko artean.
- Erdaldun elebakarrei dagokienez, portzentaia handiena (%40) 50 eta 64 urte bitarteko artean izan ondoren, behera egiten du, %25era iritsi arte 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean.

Beraz, eremu euskaldunean, elebidunak gehiengo argia dira 25 urtetik beherako gazteen artean eta erdaldun elebakarrak gero eta gutxiago dira.


b) Eremu mistoa

- Elebidunen proportzioa %5 inguruan mantentzen da 34 urtetik gorako artean, eta emeki gorantz doa adin horretatik behera: %6koa da 25 eta 34 urteko gazteen artean eta %7koa 16 eta 24 urte bitarteko artean. Hala ere, 16 urtetik beherako artean elebidunen proportzioak gora egiten du nabarmen. Izan ere, gaur egun 10 eta 15 urte dituztenetatik %13 euskaldunak dira, 1991ko Zentsuko datuen arabera.
- Elebidun hartzailerik %7 dira 64 urtetik gorako artean eta %18 35 eta 49 urte bitarteko artean. Aldiz, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean %12ra jaisten da portzentaia.
- Erdal elebidunak gehiengo dira adin-talde guztietan, hala ere jaitziera nabari da. Horrela, 50 urtetik gorako artean %88 izatetik, %80 ingurura jaisten da portzentaia adin hori baino gazteagoen artean.

c) Eremu ez-euskalduna

- la ez dago elebidunik 15 urtetik gorako artean (%1 dira, batez beste). Nolanahi ere, 10 eta 15 urte bitarteko artean %2,5 elebidunak dira, 1991ko Zentsuaren arabera, eta horrek aldaketa esanguratsua gertatzen ari dela ematen du aditzera.
- Ez dago elebidun hartzailerik 50 urte edo goragoko biztanleen artean, baina adin hori baino gazteagoen artean, proportzioa %10 ingurukoa da adin-talde guztietan.

HIZKUNTZA-GAITASUNA ADINAREN ARABERA EREMUKA (%)



Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

HIZKUNTZA-GAITASUNA ADINAREN ARABERA EREMUKA (%)

	ADIN-TALDEAK						
	GUZTIRA	≥ 65 1931 edo lehenago	50 - 64 1932 - 1946	35 - 49 1947 - 1961	25 - 34 1962 - 1971	16 - 24 1972 - 1980	10 - 15 ^(*) 1981 - 1986
NAFARROA	100	100	100	100	100	100	100
Euskaldun elebakarrak	0	1	0				
Elebidunak	9	9	9	9	9	11	16
Elebidun hartzaileak	10	3	5	14	14	12	6
Erdaldun elebakarrak	81	87	86	77	77	77	78
EUSKALDUNA	100	100	100	100	100	100	100
Euskaldun elebakarrak	2	7	4				
Elebidunak	58	63	57	58	52	59	70
Elebidun hartzaileak	7	2		9	11	16	13
Erdaldun elebakarrak	33	28	40	33	36	25	17
MISTOA	100	100	100	100	100	100	100
Elebidunak	5	5	4	5	6	7	13
Elebidun hartzaileak	13	7	9	18	15	12	7
Erdaldun elebakarrak	82	88	87	77	79	81	80
EZ-EUSKALDUNA	100	100	100	100	100	100	100
Elebidunak	1		1	1	1	1	2,5
Elebidun hartzaileak	6		1	9	11	10	2,5
Erdaldun elebakarrak	93	100	98	90	88	89	95

(*) 1991ko Zentsua: euskaldunak, ia-euskaldunak eta erdaldunak (10 - 15 urte).

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta



Hizkuntza- -gaitasuneko lau taldeen ezaugarriak

Euskaldun elebakarren, hau da, euskaraz hitz egiten dutenen eta gaztelaniaz hitz egiten ez dutenen ezaugarriak ondoko hauek dira:

- Eremu euskaldunean jaiok dira, guraso euskaldunak izan dituzte eta euskara izan dute lehen hizkuntza.
- Haien familia eta gertuko komunitatea erabat euskaldunak dira eta nekazari-herrietan bizi dira.
- 50 urtetik gorakoak dira, gehienek 64 urte baino gehiago dituzte, eta gizonezkoak dira batez ere.
- Ia eskolatu gabe daude.
- Oso euskaltzaleak dira eta euskararen erabilera sustatzearen alde daude.

Elebidunek, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten dutenek, honako ezaugarriak dituzte:

- Gehienak eremu euskaldunean jaiok dira eta guraso euskaldunak izan dituzte.
- Gehienek euskara izan dute lehen hizkuntza, baina laurden batek gaztelania izan du lehen hizkuntza.
- Haien familia gehienbat euskalduna da, baina ez horrenbeste gertuko komunitatea (lagunartea eta lantokia).
- Lautik hiru 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi dira, eta gainontzeko laurdena hiriguneetan edo erdi-hiriguneetan.

- Oso euskaltzaleak dira eta euskara sustatzearen alde daude.

Dena dela, eremu mistoko eta ez-euskalduneko elebidunek beste era bateko ezaugarriak dituzte. Izan ere, erdiak gaztelania izan du lehen hizkuntza eta 35 urte baino gutxiago ditu, eta gehienak hiriguneetan eta inguru erdaldunean bizi dira.

Elebidun hartzaileek, hau da, euskaraz zertxobait hitz egiten dutenek, honako ezaugarriak dituzte:

- Lehen hizkuntza gaztelania izan dute, baina badago lehen hizkuntza euskara soilik edo gaztelaniarekin batera euskara ere izan duen gutxiengo bat ere (%14).
- 50 urte baino gutxiago dituzte, erdiak 35 baino gutxiago.
- Gehienak eremu mistoan eta ez-euskaldunean bizi dira, erdia hiriguneetan.
- Gertuko komunitatea erdalduna da nagusiki.
- Ikasketa-maila batez bestekoaren gainetik dago eta gehienek irakaskuntza-sistematik kanpo ikasi dute euskara.
- Oro har, euskararekiko interesa dute eta euskararen erabilera bultzatzearen alde daude.

Erdaldun elebakarrak, hau da, euskara ez dakitenak eta ulertzen ez dutenak Nafarroako biztanleriaren gehiengoa dira (%80,6) eta haien ezaugarriak honakoak dira:

- Gaztelania izan dute lehen hizkuntza.
- Familia eta gertuko komunitatea erdaldunak dira batez ere.
- Eremu mistoan eta ez-euskaldunean bizi dira.
- Asko (%39) euskararen erabilera bultzatzearen aurka daude, laurdena (%27) alde eta gainerakoek ez dute aldeko edo aurkako jarrera argirik adierazten.

Elebidunen tipologia

Eremu euskaldunean, elebidunen arteko laurdena errazago moldatzen da gaztelaniaz euskaraz baino. Nafarroako gainerako eremuetan, proportzio hori bi herenera igotzen da

Elebidunen artean hiru talde bereiz ditzakegu hizkuntza-gaitasun erlatiboaren arabera, hau da, euskaraz edo gaztelaniaz aritzeko erraztasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera:


- **Euskal elebidunak:** euskaraz errazago moldatzen dira gaztelaniaz baino. Nafarroako Foru Komunitateko elebidunen %32,7 dira.
- **Elebidun orekatuak:** bi hizkuntzetan berdin moldatzen dira. Elebidunen %28,9 dira.
- **Erdal elebidunak:** gaztelaniaz hobeto moldatzen dira. Alde txikiagatik bada ere, talderik handiena osatzen dute (%38,4).

Hau oso sailkapen garrantzitsua da. Izan ere, euskararen erabilera aztertzean ikusiko den bezala, elebidunek hizkuntza batean eta bestean moldatzeko duten erraztasunak dexente baldintzatzen baitu hizkuntza-aukera.

Hizkuntza-gaitasun erlatiboan alde nabariak daude eremu linguistiko batetik bestera:

- Eremu **euskaldunean** elebidunetik %42,4 hobeto moldatzen dira euskaraz, %30,7 berdin moldatzen dira bi hizkuntzetan eta gainontzekoak (%26,9) hobeto gaztelaniaz.

ELEBIDUNEN TIPOLOGIA. NAFARROA (%)



Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta


- Eremu **mistoan**, aldiz, hiru elebidunetik ia bi (%61,5) gaztelaniaz moldatzen dira hobeto, laurdena (%24,8) berdin batean zein bestean eta %13,7 euskaraz hobeto.
- Eremu **ez-euskaldunean** banaketa eremu mistoan bezalakoa da, euskaraz hobeto hitz egiten dutenak %5,9 besterik ez direla salbu.

ELEBIDUNEN TIPOLOGIA EREMUKA

	NAFARROA		EUSKALDUNA		MISTOA		EZ-EUSKALDUNA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Elebidunak	41.000	100,0	27.500	100,0	12.200	100,0	1.300	100,0
Euskal elebidunak	13.400	32,7	11.600	42,4	1.700	13,7	100	5,9
Elebidun orekatuak	11.900	28,9	8.500	30,7	3.000	24,8	400	29,3
Erdal elebidunak	15.700	38,4	7.400	26,9	7.500	61,5	800	64,8

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

ELEBIDUNEN TIPOLOGIA EREMUKA (%)



Gaztelaniaz hobeki moldatzen diren elebidunen proportzioa handiagoa da adinean behera egiten den heinean. Hala ere, eremu euskaldunean joera hori aldatu egiten da gazteen artean

Nafarroako Foru Komunitateko joera orokor gisa, esan dezakegu adinean jaitsi ahala goraka doala gaztelaniaz hobeki moldatzen diren elebidunen proportzioa eta beheraka, ordea, hobeki euskaraz moldatzen direnena. Dena dela, joera hori eremu euskaldunean aldatu egiten da.

- Eremu **euskaldunean** euskaraz hobeto moldatzen diren elebidunen portzentaia %50 ingurukoa da 50 urtetik gorako artean eta asko jaisten da adin hori baino gazteagoen artean: %29raino 25 eta 34 urte bitarteko artean. Aitzitik, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean joera aldatu eta proportzioa %35era igotzen da.

Gaztelaniaz hobeto moldatzen diren elebidunak, aldiz, gehiago dira adin-taldeetan behera egin ahala; izan ere, %18 dira 50 urtetik gorako artean eta %44 25 eta 34 urte bitarteko artean. Aitzitik, 16 eta 24 urteko gazteen artean kontrako joera antzematzen da, portzentaia 10 puntu jaisten baita.

Halaber, bi hizkuntzetan berdin moldatzen diren elebidunen portzentaia %30 inguru da adin-talde guztietan.

- Eremu **mistoan** euskaraz hobeto moldatzen direnak herena baino zertxobait gehiago dira 64 urtetik gorako artean, baina portzentaia behera egiten du nabarmen adinarekin

batera, 35 urtetik beherako artean ia desagertu arte.

Aldi berean, gaztelaniaz hobeto moldatzen diren elebidunak gero eta gehiago dira adinean behera egin ahala, hasi 64 urtetik gorako %38tik eta 35 urtetik beherako %78ra arte.

Bi hizkuntzetan berdin moldatzen diren proportziorik handiena (%32) 35 eta 49 urte bitarteko artean aurkitzen da eta behera egiten du, 35 urtetik beherako artean %20 inguruan egonkortzeko.

- Eremu **ez-euskaldunean**, elebidunen portzentaia %0,8koa baino ez denez, laginean ez dago nahikoa datu hiru elebidun-mota horien adinaren arabera bilakaeraren zehaztasuna ziurtatzeko. Nolanahi ere, arazorik gabe esan daiteke gaztelaniaz hobeto moldatzen direnak gehiengo direla elebidunen artean adin-talde guztietan.

Elebidunetan gazteenak (hau da, 16 eta 24 urte bitartekoak) bakarrik kontuan hartuz gero, zera ikusten da:

- Eremu euskaldunean, gehiengo dira eta gehienek erraztasun handiagoa dute euskaraz edo berdin moldatzen dira hizkuntza batean zein bestean;
- Nafarroako gainerako tokietan, aldiz, oso gutxi dira oraindik eta errazago moldatzen dira gaztelaniaz.

Desberdintasun hori nabarmena da eta badu islarik gazteen arteko euskararen erabileran, geroago ikusiko den bezala, hizkuntza-gaitasun erlatiboa eta inguruneke elebidunen dentsitatea faktore eraginkorrek baitira erabileran.

ELEBIDUNAK ADINAREN ARABERA EREMUKA (%)

	ADIN-TALDEAK					
	GUZTIRA	≥ 65 1931 edo lehenago	50 - 64 1932 - 1946	35 - 49 1947 - 1961	25 - 34 1962 - 1971	16 - 24 1972 - 1980
NAFARROA	100	100	100	100	100	100
Elebidunak	9	9	9	9	9	11
Euskal elebidunak	33	44	49	32	19	21
Elebidun orekatuak	29	32	25	34	25	27
Erdal elebidunak	38	23	25	34	57	52
EUSKALDUNA	100	100	100	100	100	100
Elebidunak	58	63	57	58	52	59
Euskal elebidunak	42	46	58	41	29	35
Elebidun orekatuak	31	35	25	35	26	31
Erdal elebidunak	27	19	18	24	44	34
MISTOA	100	100	100	100	100	100
Elebidunak	5	5	4	5	6	7
Euskal elebidunak	14	38	27	14	3	1
Elebidun orekatuak	25	24	29	32	20	21
Erdal elebidunak	62	38	44	54	77	78


Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

Elebidun orekatuek, hau da, hizkuntza batean zein bestean erraztasun berbera dutenek, aurreko ataleko elebidunen ezaugarri beretsuak dituzte. Dena den, euskal elebidunek eta erdal elebidunek elkarren artean argi bereizten dituzten ezaugarriak dituzte.

Euskal elebidunen ezaugarri bereziak honako hauek dira:

- Eremu euskaldunean jaiok dira, guraso euskaldunak izan dituzte eta euskara izan da haien lehen hizkuntza.
- Eskualde euskaldunetan eta 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi dira.
- Familia eta lagunartea ia osoki euskaldunak dira; lan-giroa, ordea, ez hainbeste.
- Erdiak baino gehiagok 50 urtetik gora ditu eta, haien batez besteko adin handiagatik, euren ikasketa-maila elebidunen batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa da.

ELEBIDUNAK ADINAREN ARABERA EREMUKA (%)



Erdal elebidunen ezaugarriak, aldiz, beste honako hauek dira:

- Erdiak bakarrik izan du euskara lehen hizkuntza eta guraso biak euskaldunak.
- Familia partzialki baino ez da euskalduna eta gertuko komunitatea erdaldunagoa da euskalduna baino.
- Erdia eremu mistoan bizi da, hiriguneetan.

- Erdiak 35 urte baino gutxiago ditu eta duten ikasketa-maila biztanleriaren batez bestekoarena baino askoz handiagoa da.
- Erdiak irakaskuntza-sistematik kanpo ikasi du euskara.

Eremu mistoan eta erdaldunean, erdal elebidunen profila are bereziagoa da. Izan ere, hirutik bik gaztelania izan dute lehen hizkuntza, gazteagoak dira eta inguru ia erabat erdaldunean bizi dira.




Lehen atalean, Nafarroan 15 urtetik gorako biztanleek zer nolako euskara-maila duten azaldu da. Bigarren honetan, aldiz, hizkuntzaren transmisioa izango da ikergai, eta horretarako honako hauek aztertuko dira:

- Ama-hizkuntza edo lehen hizkuntza.
- Euskararen familia bidezko transmisioa.
- Hizkuntza-bilakaera, euskarak izandako galera-irabaziak kontuan hartuz.

Ama-hizkuntza edo lehen hizkuntza

Eremu euskaldunean izan ezik, gaztelania izan da ia nafar guztien lehen hizkuntza

LEHEN HIZKUNTZA. NAFARROA (%)



Ama-hizkuntza edo lehen hizkuntza deitzen duguna hiru urte bete baino lehenago ikasitakoa da. Hiritarren lehen hizkuntzaren arabera, honako hiru taldeak bereiz daitezke:

- Nafarretatik %8,3k (36.400 lagunek inguruk) **euskara** izan dute lehen hizkuntza.
- %1,8k (8.000 lagunek inguruk) **euskara eta gaztelania** izan dituzte lehen hizkuntza.
- %89,8k (392.800 lagunek, gutxi gorabehera) **gaztelania** izan dute lehen hizkuntza.

Beraz, nafar gehientsuenen lehen hizkuntza gaztelania izan da, eremu euskaldunean izan ezik:


- **Eremu ez-euskaldunean**, ia biztanle guztiena (%99,3); eremu honetan, lehen hizkuntza euskara soilik edo gaztelaniarekin batera izan dutenak %1era ere ez dira iristen.
- **Eremu mistoan**, gehienena (%93,6); izan ere, eskualde honetan lehen hizkuntza euskara izan dutenak %4,2 dira eta euskara eta gaztelania izan dituztenak %2,2.
- **Eremu euskaldunean**, ordea, biztanleen erdiak baino gehiagok (%55,4) euskara izan du lehen hizkuntza eta %4,7k euskara eta gaztelania; gainontzekoek (%39,9) gaztelania izan dute lehen hizkuntza.

LEHEN HIZKUNTZA EREMUKA

	NAFARROA		EUSKALDUNA		MISTOA		EZ-EUSKALDUNA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
GUZTIRA	437.200	100,0	47.700	100,0	227.800	100,0	161.700	100,0
Euskara	36.400	8,3	26.400	55,4	9.600	4,2	400	0,2
Biak	8.000	1,8	2.300	4,7	5.000	2,2	700	0,5
Gaztelania	392.800	89,8	19.000	39,9	213.200	93,6	160.600	99,3

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

LEHEN HIZKUNTZA EREMUKA (%)



Oharra: Zirkuluen tamaina eremu bakoitzeko biztanleriaren araberakoa da.

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

Lehen hizkuntza adinaren arabera

Beherakada garrantzitsua izan eta gero, goraka doa gazteen artean lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania dituztenen proportzioa, eremu euskaldunean batez ere

Adinean jaitsi ahala, dexente gutxitzen da lehen hizkuntza euskara izan dutenen proportzioa, hasi 64 urtetik gorakoen %11tik eta 16 eta 34 urte bitarteko gazteen %6ra arte; aldiz, maila beretsuan mantendu da (%2aren inguruan) lehen hizkuntza euskara eta gaztelania izan dituztenen portzentaia.

Nolanahi ere, kontuan izanik galdeketa informazioa jaso dela inkestaturiko pertsonen dituzten 16 urtetik beherako seme-alaben lehen hizkuntzari buruz, esan dezakegu haien artean dexente gehiago direla, lehenagoko belaunaldiaren aldean, lehen hizkuntza euskara izan dutenak (%6tik %8ra igotzen da), eta gaztelaniarekin batera euskara ere izan dutenak (%1etik %4ra).

- Eremu **euskaldunean**, joera-aldaketa hori lehenago gertatu da, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, hain zuzen. Horrela, lehen hizkuntza euskara izan dutenen portzentaia 64 urtetik gorakoen %67tik 25 eta 34 urte bitartekoen %44ra

jaitsi ondoren, %51ra igo da 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean. Eta 16 urtetik beherakoen kasuan, portzentaia bera ageri da, nahiz eta hemen handiagoa izan lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dituztenen portzentaia (%8tik %12ra).

- Eremu **mistoan**, 16 eta 24 urte bitartekoen artean lehen hizkuntza euskara soilik izan dutenen portzentaia (%1) eta euskararekin batera gaztelania ere izan dutenena (%0) ia desagertu arte jaitsi ondoren, joera alderantzizko bidetik sartzen da 16 urtetik beherakoen artean, %3k euskara baitute lehen hizkuntza eta %4k euskara eta gaztelania, biak batera.
- Eta eremu **ez-euskaldunean**, euskararen transmisioaz hitz egiten has daiteke: 16 urte baino gutxiagokoek artetik %1ek euskara izan dute lehen hizkuntza eta %2k euskara eta gaztelania.

Gazteen artean ageri den joera-aldaketa horrek euskara biziberritzen ari dela erakusten du eta aldaketa horren zergatia azaltzeko esan dezakegu gaur egun ia ez dela galerarik gertatzen gurasoek seme-alabei euskara transmititzean, ondorengo atalean ikusiko den bezala.

LEHEN HIZKUNTZA ADINAREN ARABERA EREMUKA (%)

	ADIN-TALDEAK						
	GUZTIRA	≥ 65 1931 edo lehenago	50 - 64 1932 - 1946	35 - 49 1947 - 1961	25 - 34 1962 - 1971	16 - 24 1972 - 1980	3 - 15 1981 - 1993
NAFARROA	100	100	100	100	100	100	100
Euskara	8	11	9	9	6	6	8
Biak	2	2	4	1	2	1	4
Gaztelania	90	87	87	90	92	93	88
EUSKALDUNA	100	100	100	100	100	100	100
Euskara	55	67	61	54	44	51	51
Biak	5	4	1	4	8	8	12
Gaztelania	40	30	38	42	48	42	37
MISTOA	100	100	100	100	100	100	100
Euskara	4	8	4	6	2	1	3
Biak	2	4	7	0	0	0	4
Gaztelania	94	88	88	94	97	99	93
EZ-EUSKALDUNA	100	100	100	100	100	100	100
Euskara	0		0	0	0	0	1
Biak	0		0		2	0	2
Gaztelania	99	100	99	100	97	100	97

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta



Euskararen familia bidezko transmisioa

Gurasoek seme-alabei euskara transmititzean galera handiak izan diren arren, batez ere gurasoetako batek euskara ez zekienean, gaur egun ia ez dago galerarik

Nafarroan galera garrantzitsua izan da euskararen familia bidezko transmisioan, batez ere gurasoetako batek euskara ez zekienean.

- Aitak eta amak euskara zekitenean (biztanleriaren %11), %65ek euskara soilik transmititu diete seme-alabei lehen hizkuntza gisa; %7k euskara eta gaztelania transmititu dizkiete eta kasuen arteko %28an galdu egin da euskara.


- Aldiz, euskara gurasoetako batek bakarrik zekienean (biztanleriaren %6), gehienek (%72) ez dute euskara transmititu; %15ek euskara soilik transmititu dute eta %14k euskara eta gaztelania. Euskararen transmisioa zertxobait handiagoa izan da euskara zekiena ama zenean, alderantzizko kasuan baino.

LEHEN HIZKUNTZA GURASOEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. NAFARROA (%)

	NAFARROA	GURASOEK BA AL DAKITE EUSKARAZ?		
		Biek	Bietako batek	Ez dakite
GUZTIRA	100	100	100	100
Euskara	8	65	15	0
Biak	2	7	14	0
Gaztelania	90	28	72	100

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

LEHEN HIZKUNTZA GURASOEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. NAFARROA (%)



Oharra: Zutabeen lodierak talde bakoitzak inkestatutako biztanleria osoarekiko duen pisua adierazten du.

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

Familia bidezko transmisioan euskarak izandako galera txikiagoa izan da eremu euskaldunean Nafarroako gainerako eremuetan baino:

- Eremu euskaldunean, galera %11koa izan da euskara bi gurasoek zekitenean, eta %63koa guraso bakarrak zekienean.
- Eremu mistoan, %49koa eta %75ekoa, hurrenez hurren.
- Eta eremu ez-euskaldunean, lagineko kasuak ez dira nahikoa izan familia bidezko transmisioan izandako galera ziurtasunez aztertzeko, baina seguru aski eremu mistoan baino handiagoa izan dela esan liteke.

Aurreko datuak 16 eta 80-90 urte bitarteko inkestatu guztiei dagozkie; hots, euskarak ia XX. mende osoan zehar izan duen "batez besteko" transmisioa aztertu da. Dena dela, 80ko hamarkadan eta 90eko hamarkadaren hasieran euskarak izan duen familia bidezko transmisioa aztertzeko orduan, kontuan izanik inkestatutako pertsonak dauzkaten 16 urtetik gorako seme-alaben lehen hizkuntza, nahikoa argi ikusten da gaur egun ia ez dela galerarik gertatzen euskararen transmisioan.


- Euskara aitak eta amak dakitenean, ia ez dago galerarik transmisioan (%2an baino ez), eta ia kasu guztietan (%93an) euskara soilik transmititzen dute lehen hizkuntza gisa. Gainontzeko %5ek euskara eta gaztelania batera transmititzen dituzte.
- Aldiz, euskara guraso bakarrak badaki, galera %20koa da; %44k euskara bakarrik transmititzen dute eta %37k euskara eta gaztelania, biak batera.

LEHEN HIZKUNTZA GURASOEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. (3 eta 15 urte bitarteko seme-alabak) NAVARRA (%)

	NAFARROA	GURASOEK BA AL DAKITE EUSKARAZ?		
		Biek	Bietako batek	Ez dakite
GUZTIRA	100	100	100	100
Euskara	8	93	44	
Biak	4	5	37	1
Gaztelania	88	2	20	99

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

LEHEN HIZKUNTZA GURASOEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. (3 eta 15 urte bitarteko seme-alabak) NAFARROA (%)



Euskararen gaur egungo familia bidezko transmisioan ia ez dago alderik eremu linguistiko batetik bestera, ahaztu gabe, noski, eremu euskaldunetan proportzio handiagoan transmititzen dela euskara soilik Nafarroako gainerako eremuetan baino.

Azkenik, gaur egun euskararen transmisioan dagoen galera txikia ondo islatzen duen datu bat ekarri nahi da hona. Euskaldun berrien, hau da, lehen hizkuntza gaztelania izanik euskara ikasi dutenen %40 euskara soilik ari dira transmititzen (bizilagunak euskara jakin zein ez) eta %44 euskara eta gaztelania. Euskararen galera, berriz, %16koa baino ez da izan.

Hizkuntza-bilakaera

Euskara galdu dutenak (11.500) ikasi dutenak (9.200) baino zertxobait gehiago dira

Lehen hizkuntza euskara soilik edo euskararekin batera gaztelania ere izan dituzten lagun gehienak euskaldunak dira gaur egun, ia denak elebidunak, eta gutxieneko batzuk euskaldun elebakarrak. Hala eta guztiz ere, portzentaia garrantzitsu batek, %26k edo 44.400 lagunetik 11.500 inguruk, **partzialki edo guztiz galdu du euskara**, hots, gaur egun elebidun hartzailea (%13,9) edo erdaldun elebakarra da (%12,1).

Bestalde, lehen hizkuntza gaztelania izan dutenen artean gutxi batzuek, %2,4k edo 392.800 lagunetik 9.200 inguruk, **euskara ikasi dute** eta elebidunak dira gaur egun.

Galerak handiak izan diren arren (11.500 pertsona), irabaziak baino pixka bat handixeagoak baino ez dira (9.200 lagun). Gainera, lehen hizkuntza gaztelania izan duten 36.600 pertsona elebidun hartzaileak dira edo, bestela esanda, partziaki euskaldundu dira.

Nolanahi ere, galeren portzentaia dexente aldatzen da lehen hizkuntza euskara soilik izan ala euskara eta gaztelania eduki. Izan ere:

- lehen hizkuntza euskara soilik izan dutenen artetik, gutxi batzuek (%17,6) galdu dute: 36.400 lagunetik 6.400 inguruk;
- lehen hizkuntza euskara eta gaztelania izan dituztenen artetik, ia bi herenek (%64,2) galdu dute euskara: 8.000 lagunetik 5.100 inguruk.

Eremu euskaldunean galerak eta irabaziak parean daude, baina eremu mistoan galerak irabazien gainetik daude:

- Eremu **euskaldunean**, 2.100 pertsonak galdu dute euskara, hots lehen hizkuntza euskara soilik edo euskara eta gaztelania zituztenetatik %7,4k, eta 2.000 lagunek ikasi dute, hau da, lehen hizkuntza gaztelania zutenetatik %10,6k.
- Eremu **mistoan**, 8.800 lagunek galdu dute, hau da, lehen hizkuntza euskara soilik edo euskara eta gaztelania zituztenetatik %60,5ek; aldiz, 6.500 lagunek ikasi dute, edo, bestela esanda, lehen hizkuntza gaztelania zutenetatik %3,0k.
- Eremu **ez-euskaldunean**, lagina nahikoa izan ez arren, litekeena da ikasi dutenen kopurua galdu dutenena baino handixeagoa izatea, baina nolanahi ere kolektiboak ez dira 1.000 lagunetara iristen.


HIZKUNTZA-GAITASUNA LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA. NAFARROA

	EUSKARA / BIAK		GAZTELANIA	
	Kop.	%	Kop.	%
GUZTIRA	44.400	100,0	392.800	100,0
Euskaldun elebakarrak	1.100	2,4		
Elebidunak	31.800	71,6	9.200	2,4
Elebidun hartzaileak	6.200	13,9	36.600	9,3
Erdaldun elebakarrak	5.300	12,1	347.000	88,3


Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

HIZKUNTZA-GAITASUNA LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA. NAFARROA (%)

Lehen hizkuntza euskara / biak



Lehen hizkuntza gaztelania



Oharra: Zirkuluaren tamaina talde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

Gazteen artean, galerak desagertzerantz doaz eta irabaziak nabarmenki ugaltzen ari dira

Lehenago aztertu diren galera-irabaziak belaunaldi desberdinen batez bestekoari dagozkio (izan ere, gure azterketa mende hasieran jaiotatik 70eko hamarkadaren bukaeran jaiotara doa). Dena den, guztietako egoerak topa daitezke adinaren arabera.

Lehen hizkuntza euskara soilik edo euskara eta gaztelania izan dituzten gazteen artean, euskara guztiz edo partzialki galdu dutenak desagertuz doaz. Eta galera hori murriztearekin batera, nabarmenki ugaltzen ari da lehen hizkuntza gaztelania izan dutenen artean eskolan edo helduentzako irakaskuntzaren bidez euskara ikasi dutenen kopurua.

- 64 urtetik gorako artean, galerak handiak dira, 2.600 pertsona (%24,7), eta ia ez dago irabazirik, 200 pertsona (%0,4).

- 50 eta 64 urtekoen artean, galerak goraka doaz, 3.800 pertsona (%33,4), eta oso gutxi dira irabaziak, 600 pertsona (%0,7).
- 35 eta 49 urtekoen artean, euskara ikasi dutenen kopurua asko igotzen da, 2.100 lagun (%2,2), baina galdu dutenak gehiago dira oraindik, 2.900 lagun (%28,4).
- 25 eta 34 urtekoen adin-taldean, ikasi dutenak, 3.000 lagun (%3,8), galdu dutenak baino nabarmen gehiago dira dagoeneko, berauek asko izan arren, 1.800 (%27).
- Eta 16 eta 24 urteko gazteei dagokienez, hemen ere goraka doaz irabaziak, 3.300 pertsona (%4,5), eta dexente gutxiago dira galerak, 400 pertsona (%8).


Gainera, 1991ko Zentsuko datuen arabera, 16 urtetik beherako artean galerak ia desagertzen ari dira eta, aldiz, irabaziak nabarmenki ari dira ugaltzen.

EUSKARAREN GALERA-IRABAZIAK ADINAREN ARABERA. NAFARROA

	GUZTIRA		≥ 65 1931 edo lehenago		50 - 64 1932 - 1946		35 - 49 1947 - 1961		25 - 34 1962 - 1971		16 - 24 1972 - 1980	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
GALERAK	11.500	26,0	2.600	24,7	3.800	33,4	2.900	28,4	1.800	27,0	400	8,0
Partziala	6.200	13,9	1.300	12,5	1.900	16,9	2.000	19,4	800	11,3	200	4,0
Osoa	5.300	12,1	1.300	12,2	1.900	16,5	900	9,0	1.000	15,7	200	4,0
IRABAZIAK	9.200	2,4	200	0,4	600	0,7	2.100	2,2	3.000	3,8	3.300	4,5

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

EUSKARAREN GALERA-IRABAZIAK ADINAREN ARABERA. NAFARROA



Euskara galdu dutenek ez daukate inolako profil argirik, baina haien bereizgarriak honakoak izan daitezke:

- la erdiak euskararekin batera gaztelania izan du lehen hizkuntza.
- Erdiak baino gehiagok 50 urte baino gehiago ditu, eta gehien-gehienek 35 baino gehiago.
- Familia partzialki euskalduna dute eta gertuko komunitatea gehienbat erdalduna.
- Lautik hiru eremu mistoan bizi dira.
- Erdiak euskara ikasi du.

Eta hizkuntza-gaitasunari dagokionez, erdiak baino gehixeagok partzialki galdu dute euskara (elebidun hartzaileak dira) eta gainontzekoek erabat (erdaldun elebakarrak dira).

Lehen hizkuntza gaztelania izanda **euskara ikasi dutenak** gazteak dira batez ere, hirutik bik 35 urte baino gutxiago baitituzte; eta gutxi gorabehera hirutik batek (gaztenenek alegia) eskolan ikasi du euskara eta gainerakoek (helduenek) irakaskuntza-sistematik kanpo.

Hona hemen beste ezaugarri batzuk:

- Familia eta lagunartea partzialki euskaldunak dira.
- Lautik hiru eremu mistoan bizi dira.
- Gazteak izanik, haien ikasketa-maila Nafarroako biztanleriaren batez bestekoaren oso gainetik dago.

Euskara ikasi duten gehienak (%83) erdal elebidunak dira.




Nortasuna

Hiritar gehienek nafartzat dute beren burua. Aldiz, euskal nortasunari dagokionez, batasunik eza nabaria da: %45ek euskal herritartzat jotzen dute beren burua, %10ek erdizka bakarrik eta %41 ez dira euskal herritar sentitzen

Nafarroako hiritar gehienek (%86) nafartzat dute beren burua eta gutxiengo bat sentitzen da "erdi nafarra" (%5) edo ez da nafarra sentitzen (%5). Aztertu diren multzo guztietan, pertsona gehienek nafartzat jotzen dute beren burua antzeko proportzioan; dena dela, eremu ez-euskaldunetan eta adinekoen artean portzentaia zertxobait handiagoa da batez bestekoa baino, etorkinen artean, berriz, askoz txikiagoa, logikoa denez.

NORTASUN SOZIOPOLITIKOA. NAFARROA (%)
Euskal herritar jotzen duzu zure burua?



Aldiz, euskal nortasunari dagokionez, zatiketa bistakoa da. Nafarretatik %45ek euskal herritartzat dute beren burua, %10ek “erdizka” bakarrik eta %41 ez dira euskal herritar sentitzen. Dena dela, emaitza horietan alde handiak daude eremu linguistiko batetik bestera:


- Eremu **euskaldunean**, hiritar gehienek (%80) euskal herritartzat dute beren burua eta gutxiengoa dira euskal herritar “erdizka bakarrik” sentitzen direnak (%6) edo euskal herritar sentitzen ez direnak (%11).

- Eremu **mistoan**, erdiak baino gehiagok (%56) euskal herritartzat du bere burua, %12k “erdizka bakarrik” eta laurdena (%26) ez da euskal herritar sentitzen.
- Eremu **ez-euskaldunean**, aitzitik, gehienek (%71) ez dute beren burua euskal herritartzat hartzen, eta gutxiengoa bakarrik sentitzen da euskal herritarra (%18) edo euskal herritarra “erdizka bakarrik” (%8).

Eta “benetako euskal herritar” izateko euskaraz jakin behar ote den galdetuz gero, biztanleriaren herena pasa (%36) baieztapen horrekin ados azaldu da eta erdia (%48) aurka. Eremu euskaldunean, baieztapen horrekiko adostasuna %66raino iristen da.

NORTASUN SOZIOPOLITIKOA EREMUKA (%)

Euskal herritar jotzen duzu zure burua?



NORTASUN SOZIOPOLITIKOA EREMUKA (%)

	NAFARROA	EUSKALDUNA	MISTOA	EZ-EUSKALDUNA
EUSKAL HERRITAR JOTZEN DUZU ZURE BURUA?	100	100	100	100
Bai	45	80	56	18
Neurri batean	10	6	12	8
Ez	41	11	26	71
Ez daki/ez du erantzuten	4	3	6	2

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

Euskal nortasunak zerikusi handia du hizkuntza-gaitasunarekin eta, neurri txikiagoan, adinarekin eta jatorriarekin

Euskal nortasunaren inguruko desberdintasunik handienak hizkuntza-gaitasunagatik gertatzen dira. Izan ere, euskaldun eta elebidun hartzaile ia guztiek (%92 eta %90, hurrenez hurren) euskal herritartzat dute beren burua. Aldiz, erdaldun elebatarren artean, euskal herritar sentitzen ez direnak (%50) gehiago dira sentitzen direnak (%33) edo “erdizka” sentitzen direnak (%11) baino.

Adinaren eta jatorriaren araberrako aldeak ere, neurri txikiagoan bada ere, adierazgarriak dira. Izan ere, 50 urtetik beherako erdiak gutxi gorabehera euskal herritartzat du bere burua, baina adin horretatik gorakoen artean proportzioa herenera jaisten da. Jatorriari begiratuz, bertakoen erdiak euskal herritartzat du bere burua, eta etorkinetatik %11k baino ez.

Azkenik, euskaldun gehienek (%81) ontzat jotzen dute “benetako euskal herritar” izateko euskara jakin beharra dagoela dioen esaldia, baina portzentaia hori %51ra jaisten da elebidun hartzaileen artean eta %29ra erdaldun elebatarren artean.

Eta hizkuntza-nortasunari dagokionez (hizkuntzaren arabera, bakoitzak bere burua euskalduntzat ala erdalduntzat duen):

- Euskaldunen erdiak euskalduntzat soilik jotzen du bere burua eta beste erdiak euskalduntzat eta erdalduntzat.
- Elebidun hartzaileen artean, hirutik bik euskalduntzat eta erdalduntzat dute beren burua, eta gainontzeko herenak erdalduntzat.
- Eta erdaldun elebatar ia guztiek erdalduntzat dute beren burua.

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak

Nafarren artean desadostasun handia dago euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzearen aldeko neurriak hartzeari dagokionez, baina alde daudenak zerbait gehixeago dira aurka daudenak baino

Euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzeari dagokionez hiritarrek duten jarrera aztertzerakoan, hainbat alorretan euskara sustatzeko neurriak hartzeaz dituzten iritziak eta jarrerak izan dira kontuan.

Oro har, oniritzirik handiena lortzen duten neurriak gazteenak euskalduntzea bilatzen dutenak dira (%38k, eskola-adineko umerik izanez gero, euskarazko D eredura bidaliko lituzkete eta %30ek euskara ikasgai duen gaztelaniazko A eredura). Halaber, Herri Administrazioa euskalduntzearen aldeko jarrera ere garrantzitsua da (%56k ontzat jotzen dute “herri administrazioan lan egiteko euskaraz jakin behar dela”), eta berdin gertatzen da euskara komunikabideetan sartzearekin (%43k diote “irriti eta telebista guztiek askoz saio gehiago izan beharko lituzketela euskaraz”). Beste alde batetik, “ume guztiek euskara ikastea ezinbestekoa da” eta “euskara ikasi edo hobetu baino nahiago dut ingelesa ikasi” esaldiak ontzat jotzen dituztenen eta txartzat jotzen dituztenen portzentzaiak berberak dira.

Lortu diren erantzunekin halako tipologia bat osatu da, euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzeko neurriei buruz hiritarrek dituzten jarrerak nolabait laburtzeko. Horren arabera:


- Biztanleen %38 alde daude.
- %30ek ez dute aldeko edo aurkako jarrerarik azaltzen.
- %32 aurka daude.

Bestela esanda, nafarren artean hiru talde nabari antzeman daitezke euskara sustatzeari dagokionez, nahiz eta alde daudenak aurka daudenak baino apur bat gehiago izan.

Nafarrek euskara sustatzeko neurriei buruz duten jarrera dexente hobetu da azken bost urteotan, 1991ko I. Soziolinguistikazko Inkestan euskara sustatzearen aurka zeudenak gehiago ziren alde zeudenak baino.

Azkenik, azpimarratzekoa da nafarren ia herena (%30) euskara ikasten edo hobetzen saiatu izana irakaskuntza-sistematik kanpo. Horretarako azal dutako arrazoi nagusiak ondoko hauek izan dira: “Nire kultur sustaiak berreskuratzeko” (%35) eta “Euskal Herriko hizkuntza delako” (%32).

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERAK. NAFARROA (%)



Euskara bultzatzeko neurrien aldeko jarrera desberdina da eremu linguistiko batetik bestera eta zerikusi handia dauka hizkuntza-gaitasunarekin

Euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzeko neurrien aldeko jarrera desberdina da eremu linguistiko batetik bestera. Izan ere, eremu euskaldunean biztanle gehienak (%78) alde daude eta oso gutxi dira aurka daudenak (%5). Eremu mistoan, erdia baino pittin bat gutxiago (%44) alde dago eta laurdena (%23) aurka. Eta eremu ez-euskaldunean, erditik gora (%53) aurka dago eta gutxiengoa (%18) alde.

Euskara suspertzeari buruzko desadostasunik handienak hizkuntza-gaitasunaren arabera gertatzen dira. Izan ere, euskaldun eta elebidun hartzaille gehienak (%90 eta %81 hurrenez hurren) alde daude, baina erdaldun elebakarren artean aurka daudenak (%39) nabarmenki gehiago dira alde daudenak (%27) baino.


Jatorriari begiratuz, bertako biztanleetatik %43 alde daude eta %28 aurka, eta etorkinen artean %46 alde eta %23 aurka. Adinaren arabera ez dago alde handirik, baina aldeko jarrera zertxobait handiagoa da 25 eta 50 urte bitartekoen artean.

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERAK EREMUKA (%)

	NAFARROA	EUSKALDUNA	MISTOA	EZ-EUSKALDUNA
Oso aldekoa	13	36	13	6
Aldekoa	25	42	31	12
Ez aldekoa, ez aurkakoa	30	17	33	29
Aurkakoa	22	3	18	33
Oso aurkakoa	10	2	5	20

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERAK EREMUKA (%)



Irakaskuntzan eta administrazioaren euskalduntzean Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politikari buruzko iritzia

Biztanleriaren ia erdia ez da definitzen “ez dakielako” edo “berdin diolako” eta, bestalde, hiru nafarretik batek euskararen alde “gutxi egin dela” uste du

Gai honetaz Inkestako datuek adierazten dutenez, portzentaia garrantzitsu batek “ez daki” edo “berdin dio” erantzuten du, irakaskuntzari dagokionez %39k eta administrazioaren euskalduntzeari dagokionez %48k.

Nafarren artean, bostetik batek on irizten dio Nafarroako Gobernuak irakaskuntzan eta administrazioaren euskalduntzean darabilen politikari; hirutik batek, aldiz, txarretsi egiten du “gutxi egin delako”, eta gutxiengo batek (%5) “gehiegi egin delako”.

Irakaskuntzaren alorrean Nafarroako Gobernuak euskararekiko duen politikari dagokionez, %22k ontzat jotzen dute, baina %35ek txartzat, “gutxi egin dela” uste dutelako, eta %4k ere txartzat “gehiegi egin dela” uste dutelako.

Antzekoa gertatzen da Administrazioaren euskalduntzearen alorreko politikarekin. Izan ere, %18k ontzat jotzen duten bitartean, %29k txartzat “gutxi egin dela” uste dutelako, eta %5ek “gehiegi egin dela” iruditzen zaielako.


Emaitza hauek ondo ulertzeko, kontuan izan behar da euskara bultzatzearen alde dauden nafar gehienek “gutxi egin dela” uste dutelako txarresten dutela Gobernuaren jarduna; aldiz, aurka dauden gehienek “ez dakitela” edo “berdin diela” erantzun dute; eta, azkenik, oso gutxi dira “gehiegi egin dela” uste dutenak.

NAFARROAKO GOBERNUAREN HIZKUNTZA-POLITIKARI BURUZKO IRITZIA EREMUKA (%)

	NAFARROA	EUSKALDUNA	MISTOA	EZ-EUSKALDUNA
IRAKASKUNTZA	100	100	100	100
Desegokia, gutxi egin delako	35	47	43	20
Desegokia, gehiegi egin delako	4	1	2	7
Egokia	22	15	21	27
Berdin dio	7	2	6	9
Ez daki / erantzunik ez	32	35	28	37
ADMINISTRAZIOAREN EUSKALDUNTZEA	100	100	100	100
Desegokia, gutxi egin delako	29	44	36	15
Desegokia, gehiegi egin delako	5	0	3	9
Egokia	18	11	15	24
Berdin dio	9	4	9	9
Ez daki / erantzunik ez	39	40	36	43

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

NAFARROAKO GOBERNUAREN HIZKUNTZA-POLITIKARI BURUZKO IRITZIA (%)



Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta



Atal honetan **euskaldunek** (elebidunek eta elebkarrek) egiten duten euskararen erabilera aztertuko da. Kanpoan utziko dira elebidun hartzaileak, euskara erabiltzeko adinako maila ez duten neurrian, eta erdaldun elebarrak. Horrenbestez, ondoren eskainiko diren datuak euskaldunei buruzkoak izango dira soilik, beraz Nafarroako Foru Komunitateko biztanleriaren %9,6ari dagozkio.

Euskararen erabilera eremuka

Euskararen erabilera aztertzeko, ondoko eremuak hartu dira kontuan:

- Familia, hau da, amarekin, aitarekin, bikotekidearekin eta seme-alabekin egiten den erabilera, eta etxean egunero erabiltzen den hizkuntza.

- Gertuko komunitatea, hots, lagunekin, lankideekin, erosketak egiteko gehien erabiltzen diren dendetako saltzaileekin, merkatuan eta apaizarekin egiten den erabilera.
- Erabilera-eremurik formalenak, hau da, bankua, udala, seme-alaben irakasleak eta osasun-zerbitzuak.

Familian, gertuko komunitatean eta eremurik formalenetan, euskaldunek euskara gehiago erabiltzen dute gaztelania baino


Irudian ikus daitekeenez, aztertutako erabilera-eremu gehienetan euskaldunen erdiak gutxi gorabehera euskaraz hitz egiten du nagusiki; gutxiengoak, %10ek inguruk, euskara eta gaztelania erabiltzen ditu eta gainerakoek (%30-%50ek, kasuen arabera) nagusiki gaztelania erabiltzen dute.

Familian, seme-alabekin euskara erabiltzen da gehienbat, %65ek batez ere euskaraz hitz egiten dute haiekin, baina familiaren gainontzeko kideekin erabileraren proportzioak behera egiten du, euskaraz gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten jarraitzen bada ere. Horrela, euskaldunen erdiak baino gehixeagok euskaraz hitz egiten du amarekin (%52), aitarekin (%47) eta senarrarekin edo emaztearekin (%48), eta %6-%10ek inguruk hizkuntza biak erabiltzen dituzte. Inkestatutako euskaldunen etxebizitzaren ia erdian (%46) euskara da egunero erabiltzen den hizkuntza, seitik batean (%16) bi hizkuntzak berdinduz erabiltzen dira eta gainontzeko heren luzean (%38) gaztelania da erabiliena.

Gertuko komunitatean, euskara nagusi da erabilera-eremurik tradizionalenetan. Izan ere, hiru euskaldunetik bik nagusiki euskaraz hitz egiten dute merkatuan (%68) eta apaizarekin (%67), eta lagunekin eta lankideekin gehiago erabiltzen da euskara gaztelaniaz baino: erdiak (%51) nagusiki euskara erabiltzen du haiekin, eta gutxi gorabehera zortitik batek hizkuntza biak erabiltzen ditu. Aitzitik, gehien erabilitako dendetako saltzaileekin gehiago erabiltzen da gaztelaniaz (%51) euskara baino (%39).

Erabilera-eremurik formalenetan, euskaldun gehienek (%76) nagusiki euskaraz hitz egiten dute seme-alaben irakasleekin eta euskara (%49) gaztelaniaz (%43) baino gehiago erabiltzen dute udal funtzionarioekin, baina banku edo aurrezki kutxetako langileekin gaztelaniaz (%50) euskara (%43) baino gehiago erabiltzen da. Azkenik, euskaldunek osasun-zerbitzuekin dituzten harremanetan gaztelaniaz da nagusi, nahiz eta hirutik batek (%34) gehienbat euskara erabili haiekin.

EUSKARAREN ERABILERA EREMUKA. NAFARROA (%) (Euskaldunak, 1996)



Euskal Herriko gainerako komunitateekin konparatuz gero, Nafarroako euskaldunek zertxobait gutxiago erabiltzen dute euskara Euskal Autonomia Erkidegokoek baino, eta dexente gehiago Iparraldekoek baino. Euskal Autonomia Erkidegoaren aldean, Nafarroako erabilera apur bat txikiagoa da familian eta eremurik formalenetan, baina antzekoa edo handiagoa lagunekin eta lankideekin.

Azken bost urteotan, behera egin da euskararen erabilera familian, seme-alabekin izan ezik, eta gora egin du eremurik formalenetan


1991n egindako I. Soziolinguistikazko Inkestaren emaitzekin erkatuz gero, oro har, euskararen erabilera behera egin du familian eta gora eremurik formalenetan.

Familian, euskararen erabilera dexente egin du gora seme-alabekiko harremanetan (sei puntuko igoera gertatu da haiekin nagusiki euskaraz hitz egiten dutenen portzentaian); senarrekiko edo emaztearekiko harremanetan, aldiz, erabilera maila berean dirau, eta dexente egin du behera (hamabost puntutik gora) gurasoekin. Horren guztiaren ondorioz, etxeko erabilera hamar bat puntuko jaitsiera izan du.

Nolanahi ere, gurasoekiko harremanetan antzeman den jaitsiera hori azken bost urteotan gure laginean sartu diren 16 eta 20 urte bitarteko gazte euskaldun berrien belaunaldiak guraso erdaldunak dituelako eta haiekin derrigorrez gaztelaniaz hitz egin behar dutelako gertatu da.

Familiatik kanpo, erabilera-eremurik tradizionalenetan, merkatuan eta apaizarekin hain zuzen, gora egin du euskararen erabilera. Lagunartean eta lankideekin, berriz, erabilera egonkorta egin da eta igoera garrantzitsua izan du, orobat, eremurik formalenetan (bost puntu baino gehiago banku edo aurrezki kutxetako langileekin eta osasun-zerbitzuekin, eta hamar puntu baino gehiago udalarekin eta seme-alaben irakasleekin).

EUSKARAREN ERABILERA EREMUKA. NAFARROA (%) (Euskaldunak, 1991)



Euskararen erabilera eremu linguistikoaren arabera

Eremu euskalduneko euskaldunek euskara erabiltzen dute nagusiki, gainontzekoek, ordea, batez ere gaztelania

Nafarroako euskararen erabileraz eman diren datuok bi errealitate guztiz desberdinen batez bestekoaren ondorio dira:

Eremu **euskaldunean** euskara da euskaldun gehienen ohiko hizkuntza.

Familian, %73k nagusiki euskara erabiltzen dute seme-alabekin, %69k amarekin, %68k aitarekin eta %59k senarrarekin edo emaztearekin. Gainera, %10ek euskara eta gaztelania erabiltzen dituzte. Etxeko ohiko hizkuntza euskara da etxebizitzaren %60an, beste %17an bi hizkuntzak eta gainontzeko %23an gaztelania erabiltzen da gehienbat.

Familiatik kanpo, gehientsuenek batez ere euskara erabiltzen dute merkatuan eta apaizarekin, ia hirutik bik lagunekin eta lankideekin, eta erdiak baino gehiagok dendariekin. Gainera, zortzitik batek euskara eta gaztelania erabiltzen ditu.

Eremurik formalenetan, euskara erabiltzen da seme-alaben irakasleekin, hirutik bik euskara erabiltzen dute udaletxean, erdiak baino gehiagok bankuetan, eta gaztelania da osasun-zerbitzuekin gehien erabiltzen dena.

Eremu **mistoan** euskaldunek batez ere gaztelania erabiltzen dute.


Familian, %20k nagusiki euskara erabiltzen dute gurasoekin eta %26k senarrarekin edo emaztearekin, baina gehientsuenek (%75 inguru) gaztelania erabiltzen dute. Seme-alabekin, ostera, antzeko proportzioan daude euskaraz hitz egiten dutenak (%43) eta gaztelania erabiltzen dutenak (%45). Etxeko ohiko hizkuntza euskara da etxebizitzaren %18an, %13an bi hizkuntzak erabiltzen dira eta %69an gaztelania da erabiliena.

Gertuko komunitatean, handi samarra da lantokian egiten den erabilera, %30ek nagusiki euskaraz hitz egiten dute lankideekin eta %13k euskaraz eta gaztelaniaz. Lagunekin eta apaizarekin, ordea, gutxi gorabehera %20k erabiltzen dute euskara nagusiki.


Eremurik formalenetan, gehienek euskara erabiltzen dute seme-alaben irakasleekin, baina %10 ere ez dira udaletxeko funtzionarioekin, banku edo aurrezki kutxetako langileekin, osasun-zerbitzuetan eta dendetan euskara erabiltzen dutenak.

Eremu **ez-euskaldunean**, euskaldunen lagina nahikoa ez izan arren ziurtasun osoko datuak eskaintzeko, euskararen erabilera eremu mistoan baino txikiagoa dela esan daiteke.

EUSKARAREN ERABILERA EREMUKA. EREMU EUSKALDUNA (%) (Euskaldunak, 1996)



EUSKARAREN ERABILERA EREMUKA. EREMU MISTOA (%) (Euskaldunak, 1996)



Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak

Euskararen erabileran, norberaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea eta hizkuntza-gaitasun erlatiboa dira funtsezko faktoreak

1991ko I. Soziolinguistikazko Inkestan euskararen erabileran eragina duten faktoreen azterketa sakona egin zen, etxeko, laneko eta lagunekiko erabilera erreferentziatzat hartuz. Oraingo honetan egindako azterketak berretsia egin ditu 1991n ateratako ondorioak.


Euskararen erabileran eragina duten faktore nagusiak bi dira:

- Bata, sozioestruturala, hau da, harreman-sareko euskaldunen dentsitatea, esparru linguistikoarekin oso zerikusi handia duena.
- Bestea, psikolinguistikoa, hau da, hizkuntza-gaitasun erlatiboa, edo, bestela esanda, euskaraz edo gaztelaniaz moldatzeko erraztasun handiagoa edo txikiagoa izatea (lehen hizkuntzarekin zerikusi handia duena).

Euskararen erabilerak eta harreman-sareko euskaldunen dentsitateak duten koerlazioa 0,73koa da etxeko erabileran, 0,72koa lagunekin eta 0,84koa lanean; aldiz, hizkuntza-gaitasun erlatiboarekiko koerlazioa 0,62koa da etxeko erabileran, 0,61ekoa lagunekin eta 0,29koa lanean. Hau da, koerlazioak oso handiak dira eta harreman-sareko euskaldunen dentsitatea da faktore nagusia, batez ere euskara lankideekin erabiltzeko orduan.

Beste faktore batzuk ere, adina eta euskararen erabilera bultzatzeari buruzko jarreraren esaterako, loturik daude erabilerarekin, baina askoz neurri txikiagoan, koerlazioak 0,25era ere ez baitira iristen. Gainera, koerlazio horiek dexente txikiagoak dira harreman-sarearen eta hizkuntza-gaitasun erlatiboaren eragina kentzen denean. Beste era batera esanda, harreman-sareko euskaldunen dentsitatea eta hizkuntza-gaitasun erlatiboa berdintsu mantentzen direnean, euskararen erabileran ez dago aldaketa handirik adinaren arabera edo euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren arabera.

HIZKUNTZAREN ERABILERA EUSKALDUNEN DENTSITATEAREN ARABERA. NAFARROA (Euskaldunak, 1996)



Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta


Irudiak etxeko, lagunetik eta laneko erabileraren batez besteko balioak azaltzen ditu harreman-sareko euskaldunen dentsitatearen arabera. Bertan argi ikus daiteke euskaldunen dentsitateak eragin erabakigarria duela euskararen erabileran.

Etxean, lagunartean edo lantokian denek euskaraz dakitenean, euskaraz hitz egiten da batez ere. Baina nahikoa da norbaitek euskaraz ez jakitea etxean gehienbat gaztelaniaz hitz egin dadin eta lagunartean zein lantokian bi hizkuntzak erabil daitezten.

Hortaz, familian kideetako batek euskaraz ez jakitea nahikoa da euskaraz ez hitz egiteko, baina ez hainbeste lagunartean eta lantokian.

Zalantzarik gabe esan daiteke norberaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatean gutxieneko maila edo atalasea dagoela. Gutxieneko maila horren azpitik ez da euskararen erabilera bermatzen. Familian, maila hori oso argia da: denek jakin behar dute euskaraz, nahikoa baita batek ez jakitea erabilera nabarmen gutxitzeko. Lagunartean eta lantokian behar bada ez da ezinbestekoa denek euskaraz jakitea erabilera ziurtatzeko, baina bai ordea gehienek jakitea.

HIZKUNTZAREN ERABILERA HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOAREN ARABERA. NAFARROA (Euskaldunak, 1996)



Eta erabilerako bigarren faktore eragingarriari (hots, hizkuntza-gaitasun erlatiboari) dagokionez, irudian ikus daitekeen bezala:

- euskaraz hobeki moldatzen diren euskaldunek ia beti hitz egiten dute euskaraz etxean eta lagunekin, baina ez hainbeste lantokian;
- bi hizkuntzetan berdintsu moldatzen direnek euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiten dute hiru alorretan, euskara proportzio handiagoan erabiltzen badute ere;
- gaztelaniaz hobeki moldatzen diren euskaldunek, ordea, gaztelania erabiltzen dute batez ere.

Halaber, irudiak nabarmen erakusten du lantokian hizkuntza-gaitasun erlatiboak duen garrantzia familian eta lagunartean baino txikiagoa dela.

Euskararen erabilera adinaren arabera

Oro har, euskara gutxiago erabiltzen da adinak behera egin ahala

Lehenago aztertu diren hiru alorretatik (familia, lagunartea eta lantokia), lagunartea da egokiena adinaren arabeko erabilera aztertzeko, pertsona gehienek adin bereko edo beretsuko lagunak izaten dituztelako; aldiz, etxean edo lantokian belaunaldi desberdineko pertsonak bizi dira normalean.

Horregatik, lehenik eta behin eta sakonkiago lagunarteko euskararen erabilera adinaren arabera aztertuko da.


a) Lagunarteko erabilera

Euskararen lagunarteko erabilerak nahikoa egiten du behera adinarekin batera eremu euskaldunean, baina ia ez du gorabeherarik eremu mistoan

Lagunartearen barruan, euskararen erabilerak dexente egiten du behera adinarekin batera Nafarroan. Izan ere, lagunekin nagusiki euskaraz hitz egiten dutenak hiru euskaldunetik ia bi dira 50 urte edo gehiagokoen artean, erdia 35 eta 49 bitartekoen artean, %40 25 eta 34 urte bitartekoen artean eta hirutik bat 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean.


Eremu euskaldunean ere lagunarteko euskararen erabilerak behera egiten du adinarekin batera. Izan ere, 64 urtetik gorako euskaldunetatik %77k erabiltzen dute euskara nagusiki, baina 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean portzentaia %42koa da. Aldiz, eremu mistoan, gutxi gorabehera maila beretsuan dirau adinaren arabeko erabilerak, adin-talde guztietan %22 inguru baitira nagusiki euskara erabiltzen dutenak. Horrela, 25 eta 34 urteko euskaldunen artean halako jaitziera (%17rainokoa) antzematen bada ere, ordainetan handiagoa da euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenen portzentaia.

EUSKARAREN ERABILERA LAGUNARTEAN ADINAREN ARABERA. NAFARROA (%) (Euskaldunak, 1996)




Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

EUSKARAREN ERABILERA LAGUNARTEAN ADINAREN ARABERA EREMUKA (%) (Euskaldunak, 1996)



Eremu ez-euskalduna
(lagina ez da nahikoa
adin-taldekako azterketa egiteko)



Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta


Eremu euskaldunean adinean behera egiten den neurrian euskararen erabileran dagoen beherakadaren arrazoi nagusia zera da, adinarekin batera lagunarteko euskaldunen dentsitatea ere txikiagoa dela. Eremu mistoan, berriz, alderantzizkoa gertatzen da, hots, adinean zenbat eta beherago joan, orduan eta handiagoa da lagunarteko euskaldunen dentsitatea, eta horri esker eusten zaio euskararen erabilerari, gazteen hizkuntza-gaitasun erlatiboa txikiagoa izan arren. Ondoko bi irudietan, bi eremu linguistiko horietako euskaldunen multzoan, lagunarteko euskaldunen dentsitatean adinarean arabera dauden gorabeherak ikus daitezke.

Egia esanda, gertatzen dena da euskararen erabileran adinarean arabera dagoen aldaketa harreman-sareko euskaldunen

dentsitatean eta hizkuntza-gaitasun erlatiboan, hau da, erabileraren bi faktore eragingarrietan, adinarean arabera ematen den aldaketaren ondorio dela. Are gehiago, euskararen erabileran adinarean arabera dauden aldeak ia erabat desagertzen dira harreman-sarearen eta hizkuntza-gaitasun erlatiboaren eragina ezabatzen denean.


Hala ere, eremu euskalduneko 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean ez da horrelakorik gertatzen, zeren eta, baldintza bereberekin, gutxiago erabiltzen baitute euskara gainontzeko euskaldunek baino. Hartara, aurreko belaunaldikoek (25 eta 34 urte bitartekoek) baino gutxiago erabiltzen dute euskara, nahiz eta haien harreman-sareko euskaldunen dentsitatea eta haien euskarazko hizkuntza-gaitasuna handiagoak izan. Gainera, ikuspuntu soziolinguistikotik antzekoak diren Euskal Autonomia Erkidegoko lekuetako joera alderantzizkoa da, hots, euskararen erabilera gora egiten ari da gazteenen lagunartean.

EUSKARAREN EZAGUTZA LAGUNARTEAN ADINAREN ARABERA. EREMU EUSKALDUNA (%) (Euskaldunak, 1996)



Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

EUSKARAREN EZAGUTZA LAGUNARTEAN ADINAREN ARABERA. EREMU MISTOA (%) (Euskaldunak, 1996)



Iturria: 1996ko soziolinguistikako inkesta

b) Etxeko erabilera

Etxeko euskararen erabileran ez dago alderik adin batetik bestera eremu euskaldunean, baina dexente jaisten da eremu mistoan adinak behera egin ahala

Adinaren arabera etxeko euskara zein mailatan erabiltzen den aztertzeko orduan, eragin nabarmeneko bi zertzelada izan behar dira kontuan:


- Batetik, inkestatuaren adinak ez duela islatzen haren etxean bizi direnen adina, etxe berean belaunaldi desberdineko

pertsonak bizi baitira normalean. Nolanahi ere, inkestatuak 30-35 urte baino gehiago dituenen, badago halako erlazio bat pertsona inkestatuaren adinaren eta etxebizitzako batez besteko adinaren artean, baina adin horren azpitik erlazio hori alderantzizkoa da, gazte gehienak gurasoekin bizi baitira.

- Bestetik, euskaldun berri gehienak, hau da, lehen hizkuntza gaztelania izanik euskara ikasi duten gehienak gazteak direla eta familia-giro erdalduna dutela.

Kontuan izan beharreko bi zehaztasun horiek egin eta gero, irudian ikus daitekeen bezala, etxeko erabilera behera egiten du inkestatuaren adina txikiagoa den neurrian, gorabehera txiki batzuk egon arren. Gauzak apur bat laburtuz, esan daiteke 35 urtetik gorako euskaldunen etxeen erdian gutxi gorabehera euskara dela hizkuntzarik erabiliena eta proportzio hori hamar puntu jaisten dela (%40raino, gutxi gorabehera) 35 urtetik beherako etxeetan.

EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN ADINAREN ARABERA. NAFARROA (%) (Euskaldunak, 1996)




35 urtetik beherako gazteen etxeetan euskararen erabilera antzematen den hamar puntuko jaitiera hori azaltzeko, kontuan izan behar da euskaldun berriek, oro har, 35 urte baino gutxiago dituztela eta familia gehienbat erdalduna dutela.

Nolanahi ere, erabilerari buruzko azterketa eremu linguistikoen arabera eginez gero, ikus daiteke eremu euskaldunear euskararen erabilera familian ia maila berean dagoela adin-talde guztietan. Etxebizitzen %60an gutxi gorabehera,

euskara da hizkuntzarik erabiliena, inkestatuaren adina edozein izanda ere, eta hori hala da eremu euskalduneko euskaldun guztien multzoan euskaldun berrien proportzioa dexente txikiagoa delako Nafarroako gainerako lekuetan baino.

Eremu mistoan, aldiz, gazte euskaldun gehienak euskaldun berriak dira, beraz euskararen erabilera jaitiera handia dago 35 urtetik beherako gazteen etxeetan. Horrela, 35 urtetik gorako euskaldunen etxeetatik %30ean gehien erabiltzen den hizkuntza euskara den bitartean, portzentaia hori %10era ere ez da iristen 35 urtetik beherakoen etxeetan.

EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN ADINAREN ARABERA EREMUKA (%) (Euskaldunak, 1996)




Ondoko bi irudietan, eremu linguistiko bakoitzean adinaren arabera etxeko euskaldunen dentsitatean dagoen aldaketa jasotzen da. Eremu euskalduneko dentsitatean apenas dago alderik; izan ere, etxebizitza guztietatik %80an, gutxi gorabehera, kide guztiak euskaldunak dira, inkestatuaren adina edozein izanda ere. Horren ondorioz erabileran ia ez dago alderik adin batetik bestera. Eremu mistoan, aldiz, etxeko euskaldunen dentsitateak


dexente egiten du behera adinarekin batera, batez ere 35 urtetik beherakoen artean, eta horregatik erabilerak ere behera egiten du adinarekin batera.

Eta harreman-sareko euskaldunen dentsitatearen eta hizkuntza-gaitasun erlatiboaren eragina kenduz gero, edo, bestela esanda, harreman-sareko euskaldunen dentsitateari eta hizkuntza-gaitasun erlatiboari dagokionez baldintzak berdinak izatera, ozta-ozta ikusten da aldaketarik familiako euskararen erabileran adinaren arabera.

EUSKARAREN EZAGUTZA ETXEAN ADINAREN ARABERA. EREMU EUSKALDUNA (%) (Euskaldunak, 1996)



EUSKARAREN EZAGUTZA ETXEAN ADINAREN ARABERA. EREMU MISTOA (%) (Euskaldunak, 1996)



c) Laneko erabilera

Lankideen artean, euskararen erabilerak ez du zerikusirik adinarekin


Bukatzeko, euskara lankideekin adinaren arabera nola erabiltzen den ikusiko dugu gaingiroki. Dena dela, ezer baino lehen esan dezagun halako distortsioa egon daitekeela gure azterketan, familiarekin gertatzen den bezala, lankideak belaunaldi desberdinekoak izan daitezkeelako.

Irudian ikus daitekeen bezala, lankideen arteko harremanetan ez dago gorabehera

handirik inkestatuaren adinaren arabera, euskararen erabilerari dagokionez. Nagusiki euskaraz mintzatzen direnen proportzioa bere horretan mantentzen da, %50 inguruan, adin-talde guztietan; dena dela, adinaren arabera badago jaitzierarik euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiten dutenen proportzioan.

Lantokiaren barruan euskararen erabileran adinaren arabera alderik ez egotearen arrazoia zera da, lantokiko euskaldunen dentsitatean ere alde handirik ez dagoela inkestatuaren adinaren arabera.

EUSKARAREN ERABILERA LANKIDEEN ARTEAN ADINAREN ARABERA. NAFARROA (%) (Euskaldunak, 1996)





Adinean jaitsi ahala, dexente gutxitzen da lehen hizkuntza euskara izan dutenen proportzioa, hasi 64 urtetik gorakoen %11tik eta 16 eta 34 urte bitarteko gazteen %6ra arte; aldiz, maila beretsuan mantendu da (%2aren inguruan) lehen hizkuntza euskara eta gaztelania izan dituztenen portzentaia.

Nolanahi ere, kontuan izanik gure galdeketa informazioa jaso dugula inkestaturiko pertsonen dituzten 16 urtetik beherako seme-alaben lehen hizkuntzari buruz, esan dezakegu haien artean gehiago direla, lehenagoko belaunaldiaren aldean, lehen hizkuntza euskara izan dutenak (%6tik %8ra igotzen da), eta gaztelaniarekin batera euskara ere izan dutenak (%1etik %4ra).

Gurasoek seme-alabei euskara transmititzean galera handiak izan dira, batez ere gurasoetako batek euskaraz hitz egiten ez zekienean. Dena dela, 80ko hamarkadan eta 90eko hamarkadaren

hasieran euskarak izan duen familia bidezko transmisioa aztertzeko orduan, kontuan izanik inkestaturiko pertsonen dauzkaten 16 urtetik gorako seme-alaben lehen hizkuntza, nahikoa argi ikusten da gaur egun ia ez dela galerarik gertatzen euskararen transmisioan.

Lehen hizkuntza euskara soilik edo euskara eta gaztelania izan dituzten gazteen artean, euskara guztiz edo partzialki galdu dutenak desagertuz doaz. Eta galera hori murriztearekin batera, nabarmenki ugaltzen ari da lehen hizkuntza gaztelania izan dutenen artean, eskolan edo helduentzako irakaskuntzaren bidez euskara ikasi dutenen kopurua.

Nafarroan hizkuntza-gaitasunak adinaren arabera izan duen bilakaera aztertzean, argi agertzen da euskara berreskuratzen hasi dela gazteen artean, luzaroan gorabehera handirik izan gabe egon ondoren edota helduen artean zertxobait atzera egin eta gero.

Datu horiek 1991ko I. Soziolinguistikazko Inkestan lortutakoekin konparatzen baditugu, argi azaltzen da azken bost urteotan:

- elebidunak 3.500 gehiago direla gutxi gorabehera eta elebidun hartzaileak 20.000 gehiago;

- euskaldun elebakarrak 1.600 pertsona gutxiago direla egun, eta erdaldun elebakarrak 9.000 inguru gutxiago.

Hizkuntza-gaitasun erlatiboari dagokionez, eremu euskalduneari elebidunen arteko laurdena errazago moldatzen da gaztelaniaz euskaraz baino. Nafarroako gainerako eremuetan, proportzio hori ia bi herenera igotzen da.

Gaztelaniaz hobeki moldatzen diren elebidunen proportzioa handiagoa da adinean behera egiten den heinean. Hala ere, eremu euskalduneari joera hori aldatu egiten da gazteen artean.

Nafarren artean hiru talde nabari antzeman daitezke euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzeari dagokionez, nahiz eta alde daudenak aurka daudenak baino apur bat gehiago izan. Datu hauek dexente hobetu dira azken bost urteotan, 1991ko I. Soziolinguistikazko Inkestan euskara sustatzeari aurka zeudenak gehiago baitziren alde zeudenak baino.

Nafarren artean, bostetik batek on irizten dio Nafarroako Gobernuak irakaskuntzan eta administrazioaren euskalduntzean darabilen politikari; hirutik batek, aldiz, txarretsi egiten du "gutxi egin delako", eta gutxiengo batek (%5) "gehiegi egin delako".

Familian, gertuko komunitatean eta zenbait eremu formalagotan, Nafarroako euskaldunek euskara gehiago erabiltzen dute gaztelania baino. 1991n egindako

I. Soziolinguistikazko Inkestaren emaitzekin erkatuz gero, oro har, euskararen erabilera behera egin du familian (azken bost urteotan laginean sartu diren gazte euskaldun berriek gurasoekin gaztelaniaz hitz egin behar izateak eraginda) eta gora eremurik formalenetan.

Lagunartean, euskararen erabilera dexente egiten du behera adinarekin batera Nafarroan. Eremu euskalduneari adinean behera egiten den neurrian euskararen erabilera dagoen beherakadaren arrazoi nagusia zera da, adinak behera egin ahala lagunarteko euskaldunen dentsitatea txikiagoa dela. Eremu mistoan, berriz, alderantzizkoa gertatzen da, hots, adinean zenbat eta beherago joan, orduan eta handiagoa da lagunarteko euskaldunen dentsitatea, eta horri esker, gazteen hizkuntza-gaitasun erlatiboa txikiagoa den arren, eutsi egiten zaio euskararen erabilera.

Euskararen etxeko erabilera behera egiten du inkestatuaren adina txikiagoa den neurrian, gorabehera txiki batzuk egon arren. Esan daiteke 35 urtetik gorako euskaldunen etxeen erdian gutxi gorabehera euskara dela hizkuntzarik erabiliena eta proportzio hori hamar puntu jaisten dela (%40raino, gutxi gorabehera) 35 urtetik beherakoen etxeetan. Jaitsiera hori azaltzeko kontuan izan behar da euskaldun berriek, oro har, 35 urte baino gutxiago dituztela eta familia gehienbat erdalduna dutela.

